

UMEEN TANBORRADA 2018

TANBORRADAREN EGUNA

Umeen tanborrada 2018ko **uztailaren 19an** burutuko da.

IZEN EMATEA

5-13 urte bitarteko umeak eta gaztetxoak hartu ahal dute parte. (**2013-2005** urteetan jaiok)

Izena emateko epea: 2018ko maiatzaren 21etik ekainaren 8ra Gazte Informazio Bulegoan eta ametxgazteria.eus webgunean. Izena emateko umea/gaztetxoaren izen-abizenak, jaiotze data eta arduradunaren telefono zenbakia eman beharko da.

GORPUTZAK

Gorputzak: Sukaldariak, antortxeroak, fusileroak, kantineroak eta tanborreroak.

Arau orokorra bezala, lehenengo aldiz izena ematen dutenak sukaldariak izan beharko dute, bigarren urtean antortxeroak, hirugarren urtean fusileroak, ondoren kantineroak eta azken urteetan tanborreroak. Dena den, **umeari antzinatasunez dagokion gorputzean lekurik ez balego , umeak aurreko urteko gorputzean errepikatu beharko du.**

Umeari dagokion gorputza esleitzeko adina izango da kontutan **eta nagusienak izango dira hurrengo gorputzera pasatzeko lehentasuna** izango dutenak.

Urte baten parte hartzen ez bada, hurrengo urtean izena ematerakoan, **tanborradako azken partehartzean izandako gorputza hartuko da erreferentzia bezala.**

ARROPA

Behin gozputzak esleituta hau da **eraman beharreko arropa:**

SUKALDARIAK: Praka luze zuria. Alkondara zuria.

ANTORTXEROAK: Praka luze bakeroa. Alkondara zuria.

FUSILEROAK: Praka luze zuria. Alkondara zuria.

KANTINEROAK: Praka luzea/gona urdina (Arrantzale) edo bakero iluna. Alkondara zuria.

TANBORREROAK: Praka luze zuria. Alkondara/kamiseta zuria.

ENTSEGUAK

Entseguak: Gutxienez entseguen **%50ean parte hartu behar da** tanborrada egunean parte hartu ahal izateko.

SMS bidez, izena ematerakoan emandako telefonoan, **entseguen egutegia eta ordutegia** jakinaraziko da.